EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta–ordaina: 8/98

Internet www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI – 286 – 78 – VITORIA–GASTEIZ

Administración: c/ Donostia–San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI – 286 – 78 – VITORIA–GASTEIZ

Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

7193

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 12koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2009ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri, koadrila eta mankomunitateei diru-laguntzak ematea arautzen duena. Diru-laguntza horiek emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnosiak egiteko eta/edo berdintasunerako planak sortu eta egokitzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko emango dira.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikuluan agindutakoaren arabera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan: politikagintzan, ekonomian, kulturgintzan eta gizartean. Emakunderen helburuak dira, beraz, sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea; berdintasun hori, izatez eta zuzenbidez, bere osotasunean garatzeko dauden oztopoak kentzea; eta emakumea baztertzeko edozein modu deuseztatzea Euskadin.

Aipatu helburuak lortzeko, EAEko Administrazio osoak parte hartu behar du, bereziki toki-administrazioek, herritarren behar, interes eta kezketatik hurbilen baitaude. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak tokiko administrazioaren eskumenak zehazten ditu 7. artikuluan. Horien

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

7193

RESOLUCIÓN de 12 de diciembre de 2008, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se regula la concesión de subvenciones, durante el ejercicio 2009, a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la Comunidad Autónoma de Euskadi destinadas a proporcionar la asistencia técnica necesaria para la realización de diagnósticos y/o elaboración y adecuación de planes para la igualdad de mujeres y hombres.

El fin esencial de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 2 de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, es la consecución de la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica y social del País Vasco, fijándose como objetivos del mismo, la promoción de las condiciones que faciliten la igualdad entre los sexos y la remoción de los obstáculos que impidan su plenitud de hecho y de derecho, y la eliminación de todas las formas de discriminación hacia las mujeres en Euskadi.

La consecución de dichos objetivos requiere de la participación de toda la Administración Vasca, con especial relevancia de la Local, como instancia más cercana a las necesidades, intereses e inquietudes de la ciudadanía. La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en su artículo 7, determina las

PAPER BIRZIKLATUA %100 PAPEL RECICLADO 100%

artean, 1.c) atalean, honako hauek aipatzen ditu: «toki-eremuko programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan». Bestalde, 15.3 artikuluak dio udalek berdintasunerako planak edo programak onetsiko dituztela, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat.

Une honetan, Eusko Jaurlaritzaren plangintza nagusia bat dator EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana/VIII. Legegintzaldirako Jarraibideekin; plan hori 2006ko irailaren 26an onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Aipatutako plan horren egitura-elementu nagusiak lau dira: ardatzak, alorrak, programak eta helburuak. Ardatz estrategikoek hurrengo urteetan berdintasun-politikei dagokienez landuko diren lehentasunezko gaiak zehazten dituzte: mainstreaminga, ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren arloko parte hartzea, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna, eta emakumeen aurkako indarkeria. Zehaztutako alorrak -hau da, berdintasuna lortzeko baliatuko diren eskuhartzeko eremu funtzionalak- zazpi dira: Berdintasunerako neurri orokorrak, Kultura, Hezkuntza, Lana, Gizarteratzea, Osasuna eta Hirigintza eta Ingurumena. Esku-hartzean, oinarrizko zortzi printzipio izango dira kontuan, besteak beste, nazioartean berdintasuna lortzeko egokienak direla uste diren bi estrategia: ekintza positiboa eta «mainstreaminga» edo genero-ikuspegia txertatzea.

Horri dagokionez, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana/VIII. Legegintzaldiko Jarraibideak tokian tokiko esparruan gauzatzea bultzatzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak berdintasun-planak abiatu ditu IV. Plana bultzatzeko eta sustatzeko, berea baita indartzeko egitekoa. Hori guztiori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 5.e) artikuluan eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikuluan ezarritakoari jarraiki egin du. Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 5.k) artikuluan egiteko hau ezarri dio Autonomia Erkidegoko Administrazioari, kasu honetan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari: «Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, tokierakundeei, gainerako euskal herri-aginteei eta ekimen pribatuari laguntza tekniko espezializatua ematea».

Esandako guztia dela-eta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak beharrezkotzat jotzen du laguntza teknikoa lortzeko diru-laguntzen bidez udalerri, udalerri-elkarte, koadrila eta mankomunitateei laguntza ematea; horrela, diagnosiak egin, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak sortu eta egokituko dituzte. Helburu horiek guztiak aintzat hartuta, diru-

competencias de la Administración Local, entre las que enumera en el apartado 1.c) la «programación en el ámbito local en el marco de la planificación general del Gobierno y la programación de las respectivas diputaciones forales». Por su parte, el artículo 15.3 señala que los ayuntamientos deben aprobar planes o programas para la igualdad, de acuerdo con las líneas de intervención y directrices establecidas en la planificación general del Gobierno Vasco.

En estos momentos la planificación general del Gobierno Vasco se corresponde con el IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV. Directrices VIII Legislatura que fue aprobado por el Gobierno Vasco el día 26 de septiembre de 2006. Los principales elementos estructurales de dicho plan son cuatro: ejes, áreas, programas y objetivos. Los ejes estratégicos definen cuáles son las cuestiones prioritarias en materia de políticas de igualdad en las que se va a trabajar durante los próximos años que, en concreto, son Mainstreaming, Empoderamiento y participación sociopolítica, Conciliación y corresponsabilidad y Violencia ejercida contra las mujeres. Las áreas establecidas, es decir, los ámbitos funcionales de intervención a través de los cuales se va a trabajar para conseguir la igualdad son siete: medidas generales para la igualdad, Cultura, Educación, Trabajo, Inclusión social, Salud y Urbanismo y Medio ambiente. A la hora de intervenir se tendrán en cuenta ocho principios básicos, entre los que se encuentran las dos estrategias internacionalmente consideradas como las más idóneas para la consecución de la igualdad: la acción positiva y el «mainstreaming» o incorporación de la perspectiva de género.

En este sentido, y a fin de favorecer la ejecución del IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV Directrices VIII Legislatura en el ámbito local, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, en ejercicio de la función de impulso que le corresponde, de conformidad con lo establecido en el artículo 5.e de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y en el artículo 2 de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, viene promoviendo y apoyando el desarrollo de dicho Plan a través de la puesta en marcha de planes para la igualdad. Además, la Ley 4/2005, de 18 de febrero, en su artículo 5.k establece como función de la Administración de la Comunidad Autónoma, en este caso de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, la «asistencia técnica especializada en materia de igualdad de mujeres y hombres a las entidades locales, al resto de poderes públicos vascos y a la iniciativa privada».

Por lo expuesto, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer ve la necesidad de coadyuvar, a través de la concesión de subvenciones destinadas a proporcionar la asistencia técnica necesaria, a municipios, agrupaciones municipales, cuadrillas y mancomunidades, para la realización de diagnósticos y la elaboración y adecuación de planes para la igualdad de mujeres y hombres. A tal

laguntzetarako deialdi hau arautu dugu, publizitate-, lehia- eta objektibotasun-irizpideen arabera.

Ebazpen honetan, egokitzat jo da diagnosiak eta/edo planak indar handiagoz sustatzea emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzen hasi diren eta oraindik udalbatzak onartutako planik ez duten udalerri, udalerri-elkarte, koadrila eta mankomunitateetan; hori dela-eta, laguntza ekonomikoak esleitzerakoan lehentasuna emango zaie, lurralde-oreka handiagoa lortzeko. Hori horrela izango da, betiere, tokiko erakunde horiek hasitako berdintasun-politiken jarraipena bermatzeko konpromisoa agertzen badute.

Laguntzak arinago kudeatzeko, deialdi honi gastu-espedienteen aldez aurreko izapideak egingo zaizkio, EAEko 2009ko Aurrekontu Orokorren kontura.

Horrenbestez, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei eta 4.3 artikuluan aipatzen diren elkarteei emango dizkien diru-laguntzak arautzen dira ebazpen honen bidez, eta horien deialdia egiten da. 2009. urtean emakumeen eta gizonen egoeraren diagnosia egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta egokitzeko behar den laguntza teknikoa kontratatzeko emango dira diru-laguntzak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 15.3 artikuluan ezarritakoa betez eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana/VIII. Legegintzaldirako Jarraibideak garatuz. Diru-laguntzen baldintzak hurrengo artikuluetan finkatuko dira, eta horien mugak aurrekontuko IV. kapituluan ezarritako kredituek emango dituzte.

2. artikulua.– Diru-baliabideak.

1.– Emakunderen aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira aurreko artikuluan adierazitako xedeak lortzeko jarritako diru-baliabideak. Zenbatekoa, hasieran behintzat, bostehun mila (500.000) eurokoa izango da.

Eskatutako laguntza guztien zenbatekoa kontuan hartuta, artikulu honetan esandako zenbatekoa handitu egin daiteke, baldin eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontu-baliabideak geratzen badira. Aldaketa hori eskabideei buruzko ebazpena hartu aurretik egin beharko da. Gora-behera hori argitaratu egingo da Emakundeko zuzendariaren ebazpen baten bidez.

fin se procede a regular la siguiente convocatoria de subvenciones bajo los criterios de publicidad, concurrencia y objetividad.

En la presente Resolución se considera oportuno fomentar con mayor intensidad la elaboración de diagnósticos y/o planes en los municipios, agrupaciones municipales, cuadrillas y mancomunidades que inician su andadura en el desarrollo de políticas públicas dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres y aún no tienen aprobado un plan por el Pleno municipal, motivo por el que se les primará a la hora de adjudicar las ayudas económicas con el fin de favorecer un mayor equilibrio territorial. Esto será así, siempre y cuando estas entidades locales muestren un compromiso de garantizar la continuidad de las políticas de igualdad iniciadas.

A fin de agilizar su gestión, esta convocatoria se acoge a la tramitación anticipada de expediente de gasto, con cargo a los Presupuestos Generales de la CAE para 2009.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución la regulación y convocatoria de las subvenciones a conceder por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la Comunidad Autónoma de Euskadi así como a las agrupaciones señaladas en el artículo. 4.3, destinadas a proporcionar la asistencia técnica necesaria para la realización, durante 2009, de diagnósticos de la situación de mujeres y hombres en el ámbito local y/o la elaboración y adecuación de planes para la igualdad, en cumplimiento del artículo 15.3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en desarrollo del IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV Directrices VIII Legislatura, en los términos señalados en los artículos siguientes y dentro de los límites que determinan los créditos consignados en el Capítulo IV de su Presupuesto.

Artículo 2.– Recursos económicos.

1.– Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos del Instituto y se cifran inicialmente en quinientos mil (500.000) euros.

El expresado importe podrá ser aumentado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y con carácter previo a la resolución de las mismas. De producirse dicha circunstancia se dará publicidad de ello mediante resolución de la Directora del Instituto.

2.– 2009ko laguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2009ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzkoa da agindu hori).

3. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da. Horretarako, garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, eta lehentasunaren araberako hurrenkeran jarriko dira, 10.1 artikuluan finkatutako irizpideak aplikatuz. Puntu gehien lortzen dituen eskaeratik hasi eta aurreko artikuluan horretarako kontsignatutako aurrekontu-kreditua agortu arte emango dira diru-laguntzak.

Bestalde, 10.2 artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa lortzen duten proiektuek soilik jaso dezakete laguntza, betiere, 11. artikuluan ezarritako gehienezko muga gainditu gabe: 15.000 euro, proiektua udalerri batek aurkezten badu, eta 30.000 euro, koadrila, mankomunitate edo elkarren ondoan dauden udalerrien elkarte batek programa bateratu bat aurkezten badu.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana/VIII. Legegintzaldirako Jarraibideak garatuz, diagnosiak eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak sortu eta egokitu nahi dituzten EAEko udalerri, koadrila, mankomunitate eta udalerrien elkarteek eska ditzakete ebazpen honetan araututako diru-laguntzak. Laguntza teknikoak sortutako gastuak ordaintzeko erabili beharko dute diru-laguntza.

2.– Ez dira onuraduntzat hartuko lehenengo atalean sartutako erakundeen menpe edo horiei lotuta dauden edo horietan partaidetza duten pertsona juridikoak, zuzenbide publikokoak edo pribatukoak. Aurrekoa gorabehera, erakunde onuradunek pertsona juridiko horien bidez kudea dezakete diru-laguntzaren gastua.

3.– Elkarren ondoan dauden bi udalerri edo gehiagoren elkarteak ere izan daitezke onuradun programa bateratu bat aurkezten badute. Kasu horretan, elkartea osatzen duten udalerri guztien berariazko baimena jaso beharko da eskabidean.

Diru-laguntza koadrila edo mankomunitate batek eskatzen badu, proiektuak hartzen dituen udalerri guztien berariazko baimena jaso beharko da eskabidean -aurreko atalean bezala-. Bestalde, udalerri-elkarte,

2.– La concesión de ayudas correspondientes a 2009 quedará supeditada a la existencia de crédito adecuado y suficiente para ese objeto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2009, de acuerdo con lo establecido en el artículo 5.3 de la Orden de 26 de abril de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 3.– Procedimiento de concesión de las ayudas.

La presente convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso. A tal efecto, la concesión de las ayudas se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas en tiempo y forma, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de adjudicación fijados en el artículo 10.1, concediendo sólo aquellas que hayan obtenido mayor valoración hasta el agotamiento del crédito presupuestario consignado a tal efecto en el artículo anterior.

Asimismo, únicamente podrán acceder a las ayudas aquellos proyectos que alcancen la puntuación mínima establecida en el artículo 10.2 y siempre respetando el límite máximo, establecido en el artículo 11, de 15.000 euros si es un proyecto presentado por un único municipio o de 30.000 euros si es un proyecto presentado por una cuadrilla, mancomunidad o agrupación de municipios adyacentes que presenten un programa conjunto.

Artículo 4.– Entidades beneficiarias.

1.– Podrán solicitar las subvenciones reguladas en la presente Resolución, aquellos municipios, cuadrillas, mancomunidades y agrupaciones municipales de la Comunidad Autónoma de Euskadi que deseen realizar diagnósticos y/o elaborar y adecuar planes para la igualdad de mujeres y hombres en desarrollo del IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV. Directrices VIII Legislatura y destinen el importe de la subvención a abonar los gastos ocasionados por la prestación de la asistencia técnica necesaria.

2.– No podrán tener la consideración de beneficiarias, las personas jurídicas de derecho público o privado, dependientes, participadas o vinculadas en las entidades incluidas en el apartado primero. No obstante lo anterior, las entidades beneficiarias podrán gestionar el gasto de la subvención por medio de dichas personas jurídicas.

3.– Igualmente podrán tener la condición de beneficiarias la agrupación de dos o más municipios adyacentes que presenten un programa conjunto, en este caso la solicitud deberá contar con la autorización expresa de todos los municipios que la componen.

En el supuesto de que una cuadrilla o mancomunidad solicite la subvención, la solicitud deberá contar al igual que en el apartado anterior, con la autorización expresa de todos los municipios a los que vaya dirigido

koadrila edo mankomunitateak aurkeztutako proiektuaren antzeko bat bere kabuz eskatzerik ez dute izango udalerriek.

Udalerri-elkarteen kasuan, udalerri bat izendatu beharko da diru-laguntzarako programa kudeatzeko eta ordaintzeko ekintzak balioz gauzatzeko.

Beharrezkoa izango da udalerri, koadrila, mankomunitate edo elkartea osatzen duten udalerrien ekarpena, diru-laguntzaren xede diren jarduerak egiteko. 7.1 artikuluko h) idatz-zatian aipatzen diren banan-banako diru-ekarpenei buruzko informazioa ere jaso beharko da eskabidean.

5. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Erakundearen helburuekin bat etorriz, laguntza teknikoak sortutako gastuak ordaintzeko erabili behar dira diru-laguntzak. Laguntza tekniko hori, hain zuzen, beharrezkoa da tokian-tokian emakumeen eta gizonen egoeraren diagnosia egiteko eta/edo berdintasun-planak egiteko eta egokitzeko, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana/ VIII. Legegintzaldiko Jarraibideak garatuz. Jarduera horretan, honako hauek sartzen dira: diagnosi eta plan orokorrak egitea (udaljardueren alderdi gehienei eragiten dietenak); sektore jakin batzuetako diagnosiak egitea eta/edo plan sektorial jakin batzuk sakontzea eta eraginkor bihurtzea; nahiz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana/ VIII. Legegintzaldia onartu aurretik ontzat emandako toki-planak aipatutako plan horri egokitzea.

2.– Laguntza teknikoak sortutako gastuak ordaintzeko erabil daitezke laguntzak. Bertako langileek nahiz kontratatutako langileek emango dute diagnosia egiteko edo berdintasun-plana sortu eta egokitzeko behar den laguntza teknikoa. Zehazki, gastu hauek onartuko dira:

– Erabaki formalaren bidez lan-prozesua egiteko izendatu diren langile funtzionarioen edo lan-kontratudun langile finkoen gastuak; prozesu horretarako soilik kontratatutako aldi baterako lan-kontratudun langileen gastuak; edo lanaldi partzialerako edo koadrila, mankomunitatea edo udalerri-elkartea osatzen duten udalerrietan aldi berean jarduteko kontratatutako langileei dagozkienak; betiere, erreferentziazko lan-prozesu hori egiteko beren-beregi izendatuak beharko dute izan.

– Laguntza teknikorako kontratatutako pertsonen eta aholkularitza-enpresen gastuak.

– Eragozpen handiak dituzten pertsonek edo bereizkeria anizkoitza jasaten dutenek lan-prozesuan parte hartzeko dituzten eragozpenak ezabatzeko neurri osagarriek sortutako gastuak.

el proyecto, no pudiendo cada municipio solicitar por su cuenta ayuda para un proyecto similar al solicitado por la agrupación, cuadrilla o mancomunidad.

Asimismo en el caso de las agrupaciones de municipios, en la solicitud se deberá designar a uno de los municipios con el que se entenderán validamente las actuaciones de gestión y pago del programa subvencional.

Será necesaria, la existencia de aportación económica por parte de cada municipio, cuadrilla, mancomunidad, o municipios integrantes de la agrupación solicitante para el desarrollo de las actividades objeto de subvención, debiendo constar igualmente en la solicitud, la información relativa a la aportación económica individualizada a la que se refiere el apartado h) del artículo 7.1.

Artículo 5.– Actividades subvencionables.

1.– En consonancia con los fines del Instituto, las ayudas deberán ir dirigidas a subvencionar los gastos derivados de la asistencia técnica necesaria para la realización de diagnósticos de la situación de mujeres y hombres en el ámbito local y/o la elaboración y adecuación de planes para la igualdad en desarrollo del IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV. Directrices VIII Legislatura. Esta actividad engloba tanto la realización de diagnósticos y planes generales (que afecten a la mayor parte de la actuación municipal) como a la realización de diagnósticos en áreas sectoriales concretas y/o de profundización y operativización de planes sectoriales concretos y la adecuación al IV Plan para la igualdad de mujeres y hombres. VIII Legislatura de los planes locales aprobados con anterioridad a la aprobación de éste.

2.– Las ayudas podrán sufragar los gastos ocasionados por la prestación de la asistencia técnica a través de personal propio o contratado al efecto que se necesite para la elaboración del diagnóstico o la elaboración y adecuación del plan para la igualdad. En concreto, se admitirán los siguientes tipos de gastos:

– Gastos de personal funcionario o laboral fijo que sea destinado, mediante decisión formal, a proporcionar la asistencia técnica necesaria para la realización del proceso de trabajo o gastos de personal laboral de carácter temporal contratado de manera exclusiva para la realización de dicho proceso o contratado a tiempo parcial o compartido por varios municipios que formen parte de la cuadrilla, mancomunidad o agrupación municipal, siempre que se realice una designación específica a las tareas del proceso de trabajo de referencia.

– Gastos de asistencia técnica mediante la contratación de personas y empresas consultoras.

– Gastos derivados de medidas complementarias para eliminar las trabas que impiden la participación en el proceso de trabajo de las personas con especiales dificultades o que sufren discriminación múltiple.

3.– Edonola ere, egiaztatu egin beharko da kontratatutako edo kontratuko diren langile teknikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko gaietan trebatzeko gutxienez 150 ordu igaro dituztela eta aholkularitzek gai honetan jarduteko nahiko trebatuta dauden edo eskarmentu handia duten langileak dituztela.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2009ko otsailaren 9an (barne) amaituko.

2.– Eskabideak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzara bidali behar dira (Manuel Iradier kalea, 36, 01005 Vitoria-Gasteiz); bestela, administrazio-prozeduraren araudian aurreikusitako edozein bidez aurkez daitezke.

7. artikulua.– Agiriak.

1.– Eskabideak I. eranskinean dagoen ereduaren arabera egin beharko dira eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari bidali behar zaizkio, agiri hauekin batera:

a) Koadrila edo mankomunitatearen estatutuen fotokopia. Mankomunitate-elkartearen izaera juridikoa eta jarduera-mota adierazi beharko dira.

b) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

c) «Datuen alta/Hirugarren interesatua» inprimakia (II. eranskina).

d) Eskabidea izenpetzen duen pertsonaren zinpeko adierazpena, egiaztatzeko batetik, pertsona horrek eta erakunde eskatzaileak ez dutela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egitegatik; eta bestetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean ez zaiela horrelako debekurik ezarri (III. eranskina).

e) Zinpeko adierazpena, egiaztatzeko eskabidea izenpetzen duen pertsonak eta erakunde eskatzaileak ez dutela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien administrazio-zehapenik edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dien lege-debekurik ere (III. eranskina).

f) Eskabidea izenpetzen duen pertsonaren zinpeko adierazpena: berariaz adierazi beharko da xede bererako beste diru-laguntzarik eskatu den eta, horrela bada, zein erakunderi eskatu zaion eta eskabide horren egoera zein den (III. eranskina).

g) Lan-prozesua azaltzen duen proiektua; 2009ko abenduaren 31 baino lehen egin behar da, eta IV. eranskinean jasotako datuak adierazi behar dira. Planak errazago egiteko eta egokitzeko eta zeregin horretan orientabidea emateko, emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan batek gutxienez izan behar dituen edukien eskema erantsi da (V. eranskina).

3.– En todo caso se deberá acreditar que el personal técnico contratado o a contratar cuenta con una formación mínima de 150 horas en materia de igualdad de mujeres y hombres o que se trata de consultoras que acrediten que cuentan con personal con dicha formación o con experiencia contrastada en esta materia.

Artículo 6.– Presentación de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes será desde el día siguiente al de la fecha de publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco hasta el día 9 de febrero de 2009 inclusive.

2.– Las solicitudes se presentarán en la sede de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, c/ Manuel Iradier, 36 (01005) Vitoria-Gasteiz, o por cualquiera de los medios previstos en la normativa de procedimiento administrativo.

Artículo 7.– Documentación.

1.– Las solicitudes se dirigirán, según modelo del anexo I, a la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, acompañadas de la siguiente documentación:

a) Fotocopia de los estatutos de la cuadrilla o mancomunidad. Debiendo constar el tipo de actividad y la naturaleza jurídica de dicha agrupación mancomunada.

b) Fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal.

c) Impreso «Alta de Datos / Tercero Interesado» (anexo II).

d) Declaración jurada de la persona firmante de la solicitud que acredite que la persona y la entidad solicitante, no se encuentran cumpliendo sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo ni están sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres (anexo III).

e) Declaración jurada de la persona firmante de la solicitud que acredite que la persona y la entidad solicitante no se encuentran sancionadas penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se hallan incursas en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello (anexo III).

f) Declaración jurada de la persona firmante de la solicitud señalando si se ha solicitado alguna otra subvención para la misma finalidad y, en su caso, organismo al que se ha dirigido y la situación de aquélla (anexo III).

g) Proyecto en el que figure el proceso de trabajo a realizar antes del 31 de diciembre de 2009, y que deberá contener los aspectos contenidos en el anexo IV. Al objeto de facilitar y orientar la elaboración o adecuación de los planes se adjunta esquema de los contenidos mínimos que ha de contemplar un plan para la igualdad de mujeres y hombres (anexo V).

h) Proiektua koadrila, mankomunitate edo udalerri-elkarte batek egiten badu, erakundea osatzen duten toki-erakunde bakoitzaren ekarpena zehaztu beharko da, bai eta udalerri guztien berariazko onarpena ere, 4. artikuluaren hirugarren paragrafoan ezarritakoaren arabera.

i) Diagnosia egin edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana sortu eta egokituko duen taldeko teknikariek arlo horretan duten prestakuntza egiaztatzen duen curriculuma eta beraien lanbide-profilak, beren-beregi adieraziz lan-prozesuan pate hartuko du(t) en pertson(e)aren izena.

j) Lanak funtzionarioei edo lan-kontratuko langileei izendatuz gero, ziurtagiri batean egiaztatu behar da eskumena duen aginteak langilea berariaz izendatu duela lan-prozesu horretarako, bai eta langile horrek helburu horretarako bere lanaldiaren zein ehuneko erabiliko duen ere.

k) Beharrezko laguntza teknikorako diru-laguntza udalbatzak onartutako planik ez duen udalerriak, koadrilak, mankomunitateak edo udalerri-elkarteak eskatzen badu, hasitako politikekin jarraitzeko konpromisoa agertu, eta horiek nola egingo diren azaldu beharko du organo eskudunak.

l) Esleipen-irizpideak egiaztatzea ahalbidetzen duten gainerako agiri guztiak.

2.– Ondoren aipatzen diren agiriak ere aurkez daitezke, meritutzat baloratuko baitira [10.1.B) artikulua]:

a) Udalerrietan, koadriletan, mankomunitateetan eta udalerri-elkarteetan aukera-berdintasuneko agente plazak daudela edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko berariazko prestakuntza duten langile kontratatuak berdintasunerako politiketan lanean jarri direla frogatzen duen ziurtagiria.

b) Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko udalerri bakoitzak aurrekontuan jarritako ehunekoa egiaztatzen duen agiria.

c) Udalerri, koadrila, mankomunitate edo udalerri-elkarteko Emakumearen Toki Kontseiluaren edo parte hartzeko organoaren erregelamenduaren kopia.

8. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 7.1. artikuluan eskatutako agiriren bat falta badute, Emakundek falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari, eta hamar eguneko epea emango dio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Horrez gain, eskatutakoa egin ezean eskaera ezetsi egingo dela ohartaraziko zaio eskatzaileari; ezesteko, aurretiaz, ebazpena emango da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.

h) En caso de que el proyecto lo realice una cuadrilla, mancomunidad o agrupación municipal, se deberá detallar la aportación de cada una de las entidades locales que lo integran, así como la aceptación expresa de cada municipio, en los términos establecidos en el artículo 4 apartado tercero.

i) Curriculum acreditativo de la formación en materia de igualdad de mujeres y hombres y perfil profesional del equipo técnico que se encargará de proporcionar la asistencia técnica necesaria para la elaboración del diagnóstico o realización o adecuación del plan para la igualdad de mujeres y hombres, indicando específicamente el nombre de la o las personas que intervendrán en el proceso de trabajo.

j) En caso de asignar personal funcionario o laboral al desarrollo de este trabajo, certificación acreditativa por parte de la autoridad competente de la designación específica de ese personal a las tareas del proceso de trabajo y porcentaje de su jornada laboral destinada a tal fin.

k) En caso de solicitar subvención para la prestación de la asistencia técnica necesaria para un municipio, cuadrilla, mancomunidad o agrupación municipal que no tengan un plan aprobado por el Pleno municipal, compromiso del órgano competente de que las políticas iniciadas van a tener continuidad y modo en que se prevé hacerlo.

l) Cualquier otra documentación que posibilite la acreditación de los criterios de adjudicación.

2.– Asimismo, se podrá aportar la documentación que se señala a continuación, la cual será valorada como mérito [artículo 10.1.B)]:

a) Certificación de la existencia de plazas de Agente de Igualdad de Oportunidades o de la asignación de las funciones de impulso de las políticas de igualdad a personal contratado con formación específica en materia de igualdad de mujeres y hombres, en cada uno de municipios, cuadrillas, mancomunidades o agrupación de municipios.

b) Certificación acreditativa del porcentaje de presupuesto local destinado a la igualdad de mujeres y hombres de cada municipio.

c) Copia del Reglamento del Consejo Local de la Mujer o del órgano de participación, del municipio, cuadrilla, mancomunidad o agrupación municipal.

Artículo 8.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación señalada en el artículo 7.1, el Instituto requerirá la presentación de la documentación omitida o la subsanación del defecto observado, concediendo, a estos efectos, un plazo de diez días a contar desde el día siguiente al de su notificación con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición previa resolución dictada en los

artikuluan agindutakoari jarraiki (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

9. artikulua.– Hautaketa-batzordea.

Hautaketa-batzordea eratuko da, aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko. Hona kideak:

Lehendakaria:

– Idazkari nagusia.

Batzordekideak:

– Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.
– Generoaren arloko Plangintza eta Ikerketaren arduraduna.
– Aholkularitza Juridikoko Arlo-arduraduna.

Idazkaria: Aholkularitza Juridikoko arduraduna izango da.

10. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Diru-laguntzak esleitzeko, hautaketa-batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan, bakoitzari emandako puntuen arabera:

A) Proposamenaren kalitatea: 45 puntu, gehienez.

– Lan-prozesuaren argitasuna eta bideragarritasuna, egutegiaren, metodologiaren eta aurrekontuaren arabera: 15 puntu, gehienez.

– Diagnosian eta/edo planean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planera zenbat egokitzen den: 15 puntu, gehienez.

– Udalerriko errealitatera egokitzea: 10 puntu, gehienez.

– Berrikuntzak: 5 puntu, gehienez.

B) Genero-ikuspegia zenbateraino dagoen instituzionalizatuta (berdintasun-politikarako zenbat langile eta zenbaterako aurrekontua dagoen, emakumeek parte hartzeko organo iraunkorrak izatea): 10 puntu, gehienez.

C) Emakumeek lan-prozesuan parte hartzea, bereizkeria anizkoitza jasaten dutenen beharrizan bereziak kontuan hartuta (halakorik egonez gero): 20 puntu, gehienez.

D) Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea lan-prozesuetan eta behin betiko materialetan: 10 puntu, gehienez.

E) Diagnosia eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana lehenengo aldiz egin behar duten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek, koadrilek edo mankomunitateek 15 puntu izango dituzte. Betiere, hasitako politikekin jarraitzeko konpromisoa hartu beharko dute eta hori nola egingo duten azaldu beharko dute.

términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y el Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 9.– Comisión de selección.

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de selección compuesta por:

Presidenta:

– Secretaria General.

Vocales:

– Responsable de Administración y Servicios.
– Responsable de Planificación e Investigación en materia de género.
– Responsable del Área de Asesoría Jurídica.

Secretaria: actuará como tal la Responsable del Área de Asesoría Jurídica.

Artículo 10.– Criterios de adjudicación de las subvenciones.

1.– Como criterios para la adjudicación de las subvenciones, la Comisión de selección tendrá en cuenta atendiendo a la puntuación asignada a cada uno de ellos, los siguientes:

A) Calidad de la propuesta: hasta 45 puntos.

– Claridad y viabilidad del proceso de trabajo en cuanto al calendario, metodología y presupuesto: hasta 15 puntos.

– Ajuste al IV Plan para la igualdad de mujeres y hombres en el diagnóstico y/o plan: hasta 15 puntos.

– Adecuación a la realidad municipal: hasta 10 puntos.

– Aspectos innovadores: hasta 5 puntos.

B) Grado de institucionalización del enfoque de género (personal y volumen presupuestario destinado específicamente a políticas de igualdad, existencia de órganos estables de participación de mujeres): hasta 10 puntos.

C) Participación de las mujeres en el proceso de trabajo, considerando, en su caso, las necesidades específicas de aquellas que sufren discriminación múltiple: hasta 20 puntos.

D) La utilización de las dos lenguas oficiales en el proceso de trabajo y en los materiales definitivos: hasta 10 puntos.

E) Los municipios, cuadrillas, o mancomunidades de la Comunidad Autónoma de Euskadi que, por primera vez, vayan a elaborar un diagnóstico y/o un plan para la igualdad de mujeres y hombres contarán con 15 puntos, siempre y cuando se comprometan a darle continuidad a las políticas iniciadas y expliquen cómo prevén hacerlo.

2.– Diru-laguntza jasotzeko, proiektuek 50 puntu lortu behar dituzte, gutxienez.

11. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

Diruz lagunduko diren jardueretarako udalerriak, koadrilak, mankomunitateak edo udalerri-elkarteak aurkeztutako aurrekontuaren % 75 izan daiteke dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere. Erakunde onuradun bakoitzeko 15.000 euro emango dira gehienez, proiektua udalerri batek aurkezten badu, eta 30.000 euro, koadrila, mankomunitate edo udalerri-elkarte batek aurkezten badu.

12. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan ezarritako diru-laguntzak bateragarriak dira gainerako erakunde publiko edo pribatuek helburu berarekin ematen dituztenekin, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago.

Gainfinantzaketa gertatuz gero, dagokion gehienezko mugaraino murriztuko da diru-laguntza.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Eskabideak hautaketa-batzordeak ebaluatuko ditu, diru-laguntzak esleitzeko irizpideen arabera; ondoren, proposamena bidaliko dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari. Emakundeko zuzendariak ebazpen adierazia eta arrazoitua emango du, eta, horren bitartez, amaiera emango dio hasitako lehiaketari. Horrez gain, diagnosiak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak sortzeko eta egokitzeko behar den laguntza teknikoa ordaintzeko diru-laguntza nori eman eta nori ukatu adieraziko da. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie udalerri, koadrila, mankomunitate edo udalerri-elkarte eskatzaileei. Hala ere, emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

2.– Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilekoa izango da, gehienez ere, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Epe horretan erakunde interesatuari ez bazaio ebazpenik jakinarazi, diru-laguntzarako eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du, hala agintzen baita azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

3.– Ebazpenean, erakunde onuradunen zerrenda jasoko da -diruz lagunduko diren proiektuak eta bakoitzari emandako zenbatekoak jarrita-, eta horretaz gain, ordezko erakundeen zerrenda ere jaso daiteke, onuradunen batek uko eginez gero, ordezkoengana jo ahal izateko. Erakunde horiek ordezkapena egiteko hurrenkeraren arabera zerrendatuko dira; proiektuak adieraziko dira eta onuradunak uko eginez gero, ordezkoaren laguntzak izan lezakeen gehienezko zenbatekoa

2.– Los proyectos subvencionados deberán obtener, al menos, un mínimo de 50 puntos.

Artículo 11.– Cuantía de las subvenciones.

La cuantía de la subvención no podrá superar el 75% del presupuesto presentado por el municipio, cuadrilla, mancomunidad o agrupación municipal para las actividades para las que solicitan la subvención, ni exceder, por entidad beneficiaria, de 15.000 euros si es presentado por un municipio, o de 30.000 si es un proyecto presentado por una cuadrilla, mancomunidad o agrupación municipal.

Artículo 12.– Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquiera otra institución pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación.

Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

Artículo 13.– Resolución.

